

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Ibai Garcia, Elaia Erkizia eta Arhane Idoatek Novatek taldea osatzen dugu. Gure asmoa zerbitzu bat osatzea da eta gure zerbitzuan luxuzko arropa alokairuan erosteko aukera jartzea da. Horrela, jendeak gama altuko jantziak erabili ahal izateko debora batez produktua bera erosi beharrean. Hori aurrera eraman ahal izateko, online plataformaren bitartez egingo litzateke, erabiltzaileengana errazagoa izateko eta nahi dituzten produktu guztiak eskuragai edukitzeko. Gure proiektuaren helburu nagusia dirua aurrezteka da, izan ere, ez lukete diru asko gastatu beharko jantzi bat behin soilik erosteko eta aukera bikaina izango litzateke luxuzko arropa jaztea ekitaldi berezi edota edozein momentutarako prezio oso onargarrietan.

Gure zerbitzua erabiliko balute bezeroek onura asko eskura ditzakete. Alde batetik, ekonomikoki laguntza handia lortuko lukete erosleek. Luxuzko arropa alokatzen bada, diru kopuru gutxiago bat ordaindu beharko da eta egoera onean dagoen arropa erabiltzeko aukera dago. Gainera, ez lukete haien dirua xahutuko, erabili ondoren arropa hori itzuliko luketeelako. Ekitaldi berezi bat baduzu, gure arropa alokatuz ordaindu beharreko dirua jetsi egingo da.

Egitasmo honen berrikuntza handiena, aurretik sortu gabeko proiektua eraikiko dela da eta gure ingurunean entzuten ez den ideia originala eta eraginkorra izan daitekeela iruditzen zaigu. Izan ere, luxuzko arropa erosi beharrean, aplikazio baten bitartez hauek alokatzeko aukera edukitzea dirua aurrezteko ideia paregabea izan daiteke.

Balio kualitatiboari dagokionez, zerbitzuaren aldetik, oso segurua izango da, beti erabiltzaileei zuzenduta egongo baita. Gainera, leku seguru batean oso ongi kontserbatutak egon eta gure garraio bideak erabiliz, nahi den lekuraino eramateko aukera egongo litzateke hauen kalitatea beti bermatuz. ekitaldi garrantzitsuetarako arropa eta markako arropa alokatzea da gure asmo nagusia. Ezkontzetarako arropa, smokinak eta marka garestietako arropak alokairuan egongo dira.

Balio kuantitatiboari dagokionez, alokairuen prezioa jantziaren arabera izango da. Arropa oso garestia bada, hori alokatzeak prezio handiagoa eskatzen du. Aldiz, arropa ez baldin bada hain garestia, hori alokatzea ez da garestia izango. Normalean prezio arrazoigarriak izango dira eta oso ekonomikoak, bezero guztiak onar dezaketen prezioak. Gure helburua batez ere prezio baxuak mantentzea izango da, benetan haientzat zein guretzat errentagarria izateko eta bezeroak bermatzeko. Horrela prezioak ajustatuko genituzke komutimitzaile desberdinak erabiltzeko aukera izateko eta bestelakoak ere erakartzeko. Baina orokorrean, prezioaren aldetik oso eraginkorra izango da, prenda hori dena baino merkeago eskura daitekeelako.

Aurretik proiektua existitzen ez zenez, inork ez zuen aukerarik luxuzko arropa momentu batez erabili eta ondoren itzultzeko. Hori dela eta ideia honen bitartez, aukera zabala eman daiteke edonork onartu edo ordain dezakeen kantitatea izango litzatekeelako. Gainera, jendearentzat eskuragarri jartzen saiatuko ginateke, horregatik erabiliko genuke aplikazioa, erosleentzat errazagoa izateko gure produktuak eskuratzeko.